BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2480

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 6koa, Hezkuntzako sailburuarena, Durangoko (Bizkaia) «Bartolomé Ertzilla» musika-kontserbatorio profesionalari musika espezialitateak gehitzeko baimena emateko dena.

Durangoko (Bizkaia) «Bartolomé Ertzilla» musika-kontserbatorio profesionalaren «Organismo Autónomo Administrativo Escuela de Música y Conservatorio de Grado Medio Bartolomé Ertzilla» erakunde titularrak hasarazitako espedientea aztertu da. Eskaeraren xedea musika espezialitateak gehitzea da.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraituz egin dira; gainera, indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta arlo horretan eskumena duten erakundeek txostena egin dute.

Arau hauek ikusi dira: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, (abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatua); 229/2007 Dekretua, abenduaren 11koa, honen bidez ezartzen da musika-ikasketa profesionalen curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak; 303/2010 Errege Dekretua, martxoaren 15ekoa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako irakaskuntza artistikoak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzen dituena; 389/1992 Errege Dekretua, apirilaren 15ekoa, Ikasketa artistikoak irakasten dituzten ikastetxeen gutxiengo arauak ezartzen dituena, eta gai horretan aplikatu beharreko gainerako legeak.

Indarrean dagoen legeria aztertu da, eta kontuan hartu da erregelamendu bidez eskatutako baldintza guztiak betetzen direla, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2023-2024 ikasturtetik aurrera, tronboia espezialitatea irakasteko baimena ematea ondoren zehazten den musika-kontserbatorio profesionalari:

Kode-zenbakiak: 015589 (EAE) eta 48017137 (unibertsala).
Izen orokorra: musika-kontserbatorio profesionala.
Izen espezifikoa: «Bartolomé Ertzilla».
Titularra: «Organismo Autónomo Administrativo Escuela de Música y Conservatorio de Grado Medio Bartolomé Ertzilla».
Helbidea: Montevideo etorbidea 7.
Udalerria: Durango.
Lurralde Historikoa: Bizkaia.

Baimendutako irakaskuntzak:

Musika ikasketa profesionalak:

Baxu elektrikoa, kantua, klarinetea, kontrabaxua, fagota, zeharkako txirula, oboea, pianoa, perkusioa, saxofoia, tronba, tronpeta, txistua, biola, biolina, biolontxeloa eta tronboia.

Bigarrena.– Ikastetxearen erakunde titularrak indarrean dagoen araudia bete beharko du ikaspostu-kopuruari, ekipamenduari, titulazio akademikoari, irakasleen hizkuntza-eskakizunari eta indarrean dagoen eta aplikagarri den gainerako legeriari dagokienez, eta emandako baimena berrikusteko eskatu beharko du, ikastetxearen erregistro-daturen bat aldatu behar denean. Bestela, emandako baimena baliogabetu egingo litzateke.

Hirugarrena.– Era berean, zentroak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa bete behar du, bai eta indarrean dagoen legerian adierazten diren higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna zentroaren erakunde titularrari dagokio.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo dirulaguntzen deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 6a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.